

7/23

irizpena

EAEan trantsizio energetikorako eta kontsumitzaileak babesteko premiazko neurriei buruzko urriaren 5eko 15/2018 Errege Lege Dekretuaren bidez sortutako bonu sozial termikoaren kudeaketa, ebazpena eta ordainketa arautzen dituen **Dekretu-proiektuari buruzkoa**

Bilbon, 2023ko maiatzaren 22a



**CES
EGAB**

Consejo Económico
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Araoetarako Batzordea

Irizpena 7/23

I.- AURREKARIAK

2023ko apirilaren 28an, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak bidalitako idazkia jaso zen Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean. Idazki horretan, *“Euskal Autonomia Erkidegoan trantsizio energetikorako eta kontsumitzaileak babesteko premiazko neurriei buruzko urriaren 5eko 15/2018 Errege Lege Dekretuaren bidez sortutako bonu sozial termikoaren kudeaketa, ebazpena eta ordainketa arautzen dituen dekretu-proiektua”* izenekoari buruzko txostena egiteko eskaera hartu zuen aholku-organoak, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen maiatzaren 17ko 8/2012 Legearen 3.1 artikulua dioenari jarraiki.

Galdegin deneko arauaren xedea da *“Gizarte Bonu Termikoa”* deritzona kudeatzeko, ebazteko eta ordaintzeko jarduketara-esparrua arautzea Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan, Trantsizio Energetikorako eta Kontsumitzaileak Babesteko Premiazko Neurriei buruzko urriaren 5eko 15/2018 Errege Lege Dekretuaren 10. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Jasotako dokumentuaren kopia berehala bidali zitzaion Kontseiluaren Osoko Bilkurako kide guztiei, euren proposamenak eta iritzia igorri eta horien berri lan-batzorde egokiari helaraz ziezaieten, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Funtzionamendu Araudian ezarritakoari jarraiki. 2023ko maiatzaren 18an, Gizarte Garapenerako Batzordea bildu zen, eta, hartutako erabakietan oinarrituta, irizpen-proiektu hau formulatu zen, maiatzaren 22ko Kontseiluaren Osoko Bilkurari helarazteko, eta bertan, aho batez onartu zen.

II.- EDUKIA

“Euskal Autonomia Erkidegoan trantsizio energetikorako eta kontsumitzaileak babesteko premiazko neurriei buruzko urriaren 5eko 15/2018 Errege Lege Dekretuaren bidez sortutako bonu sozial termikoaren kudeaketa, ebazpena eta ordainketa arautzen dituen dekretu-proiektuak” honako atal hauek dauzka: zioen azalpena, 9 artikulua, xedapen iragankor bakarra eta bi azken xedapen.

Zioen azalpenean azaltzen denez, 2008ko krisialdiaz geroztik antzeman den pobrezia energetikoaren kariz, Sektore Elektriokoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legeak, estatukoak, kontsumitzaile kalteberaren figura sortu zuen, eta *“Gizarte Bonua”* izeneko laguntza ezarri zuen, merkaturatzaileak gizarte-bonu hari atxikitako kontsumitzailearen fakturan aplikatutako deskontu jakin batean datzana.

Kontsumitzaile kalteberaren figura eta *“Gizarte Bonua”* delakoarena geroko araudiaren bidez garatu ziren; ildo horretan, besteak beste, ondoko manua aipatu behar da: urriaren 6ko 897/2017 Errege Dekretua, kontsumitzaile kalteberak zehaztu eta gizarte-bonua nahiz energia elektrikoaren etxeko kontsumitzaileentzako beste babes-neurri batzuk arautzen dituena.

“Gizarte Bonua” deritzonak eskainitako babesa nahikoa ez zela egiaztatu ondoren, energiaren prezioak etengabe igotzen ari zirela ikusita, 2018an, Trantsizio Energetikorako eta Kontsumitzaileak Babesteko Premiazko Neurriei buruzko urriaren 5eko 15/2018 Errege Lege Dekretua onartu zen. Haren bidez, kontsumitzaile kalteberen pobrezia energetikoa arintzeko laguntzen programa berria ardaztu zen, berokuntza, ur bero sanitarioa eta sukaldea hornitzeko energiari dagokionez (Gizarte Bonu Termikoa izeneko laguntza).

Konstituzio Auzitegiaren irailaren 23ko 134/2020 Epaiak, gizarte-laguntza autonomia-erkidegoen eskumen eskusibotzat deklaratu zuenak, estatuaren eskumen-esparruaren barruan mugatu zuen

Gizarte Bonu Termikoaren alderdi nagusien erregulazioa (laguntzaren xedea eta helburua, laguntzaren modalitate teknikoa, onuradunak eta laguntzari heltzeko funtsezko baldintzak), eta autonomiaren eremuaren barruan, aldiz, laguntzaren izapidetzea, ebazpena eta ordainketa, bai eta alderdi horiei dagokien prozeduraren erregulazioa ere.

Horren ondorioz, urriaren 5eko 15/2018 Errege Lege Dekretuak, Energia-trantsiziorako eta kontsumitzaileak babesteko premiazko neurriei buruzkoak, araututako prozedura osatu behar da, Euskal Autonomia Erkidegoan, gizarte-bonu termikoaren laguntzen izapidetzea errazteko xedez.

Azkenik, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 39. artikulua dioenarekin bat etorritik, Eusko Jaurlaritzak laguntza horren zuzeneko kudeaketa aldarrikatu du, nahiz eta, gure autonomia-erkidegoan, oro har, kudeaketa hori lurraldeetako foru-aldundiei eta udalei egokituko litzaiekeen.

III.- GOGOETAK

Energia ezinbesteko ondasuna da etxeetako oinarrizko beharrak asetzeko eta osasunerako erosotasun-baldintza nahikoei eusteko.

Etxe bat energia-pobreziako egoeran dagoela esaten da etxeko beharrak asetzeko adinako energia-kantitatea ordaintzeko gauza ez bada eta/edo, energia-faktura ordaintzeko helburuz, etxeko diru-sarreraren gehiegizko zatia erabili behar badu. Estatistikako Institutu Nazionalaren arabera, 2022an, EAEko familien % 10,3k (93.833 familiak hain zuzen ere) ez zeukan modurik etxebizitza tenperatura egokian izateko (2021ean baino 1,1 puntu gehiago). Ratio hori Estatu osoarena (% 17,7) baino txikiagoa da, baina Europar Batasuneko batez bestekoa baino handiagoa (% 6,9koa, EUROSTATen 2021eko datuak aintzat hartuta).

Egoera horiek arintzen laguntzeko, Estatuak gizarte-bonu termikoa izeneko prestazio ekonomikoa sortu du, eta baldintza erkide batzuk zein zenbateko unitario batzuk ezarri ditu, onuraduna bizi deneko autonomia-erkidegoa edozein dela ere.

Oraingo honetan, iritzia eskatu diote EGABi *“Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan energia-trantsiziorako eta kontsumitzaileak babesteko premiazko neurriei buruzko urriaren 5eko 15/2018 Errege Lege Dekretuaren bidez sortutako gizarte-bonu termikoaren kudeaketa, ebazpena eta ordainketa arautzen duen dekretu-proiektua”* izenekoari buruz. Dekretu-proiektu horrek gizarte-bonu termikoa kudeatzeko, ebazteko eta ordaintzeko jarduera-esparrua arautzen du Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan, gure erkidegoak gizarte-laguntzaren arloan daukan eskumenari jarraiki.

Errege Lege Dekretu horren xedearekin bat gatoz, hau da, bidezko trantsizio energetikoa errazteko asmoarekin. Horretarako, beharrezkoa da familia kalteberei eta gaitasun ekonomiko txikiagoa dutenei berriazko babes-tresnak ematea, prezioen egungo garestitasunari aurre egiteko. Era berean, aurkeztu diguten dekretu-proiektuaren aldeko iritzia dugu, Euskadiko Gizarte Bonu Termikoaren kudeaketa erraztuko baitu eta, hartara, pobrezia energetikoa murrizten lagunduko baitu.

Eusko Jaurlaritzak Gizarte Bonu Termikoa izapidetzen dihardu Euskadin 2020. urtetik, eta, orain arte, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuaren urteroko aginduak baliatzen ditu horretarako, prestazio hori kudeatzeko eta ordaintzeko prozedurari buruzko xehetasunak argitaratuta.

Testuinguru horretan, 15/2018 Errege Lege Dekretua garatzeko manuaren lege-maila autonomia-erkidegoko arautik dekretura igotzeak segurtasun juridiko handiagoa ekar diezaieke, gure ustez, laguntza horien onuradun diren familiei.

Beste alde batetik, pobrezia energetikoaren jarraipena egiteko eta hura murrizteko proposatu diren neurrien ebaluazioa egiteko, beharrezkotzat jotzen dugu onuradunen eta onuradun izan daitezkeen pertsonen egoeraren mapa egitea, honako alderdi hauek urtero-urtero jasotzen dituen azterketa baten bidez: hartzaileen bilakaera, haien ezaugarriak eta errenta-mailak, gizarte-babesen bidez hitzartutako hobekuntzen betetze-maila, elektrizitatearen horniduraren etenak, ukatutako eskaerak eta horien justifikazioa, kalteberatasun larrian dauden onuradunen kuantifikazioa eta egoera hobeto ulertzeko garrantzitsuak izan daitezkeen beste edozein inguruabar.

Azterlan hori osatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko laguntzak emateko prozedura eta laguntza horiek energia-pobrezian duten eragina ebaluatu beharko lirateke.

IV.- ONDORIOA

Euskadiko EGABen iritziz, egokia da *“Euskal Autonomia Erkidegoan trantsizio energetikorako eta kontsumitzaileak babesteko premiazko neurriei buruzko urriaren 5eko 15/2018 Errege Lege Dekretuaren bidez sortutako bonu sozial termikoaren kudeaketa, ebazpena eta ordainketa arautzen dituen dekretu-proiektua”* izapidetzea, aholku-organo honek egindako gogoetak aintzat hartuta

Bilbon, 2023ko maiatzaren 22a

O.E. Presidentea

Emilia M. Málaga Pérez

Idazkari nagusia

Olatz Jaureguizar Ugarte